

IKASLEEN TXOKOA 98. ZENBAKIA

# Hernani BHI

DBH 3-4



# Musukoaren derrigortasuna

Orain dela ia bi urte Covid-19 delako birusa zabaldu zen mundu osoan zehar.

Baita Euskal Herrian bertan ere. Honek berarekin ekarri zituen hainbat aldaketa eta murrizketa; horietako bat musukoaren derrigortasuna. Baina benetan musukoa pentsatzen duguna bezain eraginkorra eta beharrezkoa al da?

Hasteko, gaur egun ia normalizat hartzen dugun arren, musukoaren kasua polemika ugari sortu zuen gaitako bat izan zen; izan ere, arau hau ezartzeko momentuan jende askoren iritzia ez zen kontutan hartu.

Alde batetik, musukoa defendatzen duen jendea dago. Honen erabilpena beharrezkoa dela esaten dute eta eraginkortasun handia duela. Baina jende askok, musukoaren eraginkortasuna gehiegi sinistu du eta honek dena egiten duela iruditzen zaie. Hau da, musukoa jantzerekin salbu daudela pentsatzen

dute eta gainontzeko arauak ez dituzte betetzen, besteak-beste, segurtasun neurriena, eskuak garbitzearena...

Beste alde batetik, kontrako aldean daudenak daude. Esaterako, nahiz eta batzuei nahiko arrotza egin, pertsona batzuentzat ia astero musuko pakete berri bat erosi behar izatea kostu handia da. Azken finean, musukoa pare bat aldiz erabili ondoren aldatu beharra dago.

Zientzialari askoren hitzetan ere, musukoak duen eraginkortasuna ia ikusezina da eta ez litzateke beharrezkoa izan behar. Esaten dute birusa beste era batzuetan kutsatzen dela eta, hortaz, musukoak ez duela zer eginik.

Arnasteko arazoak edo antzerako gaixotasunak dituzten pertsonen larruazalean jarriz gero ere, musukoak trabak bes-

terik ez dizkie ekartzen. Egun osoa aire berdina arnasten pasatzen dute eta gainera, zaildu egiten du arnasa hartzea. Honi lotuta, kirola egiteko garaian ere, desabantailak besterik ez ditu ekartzen.

Nik uste dut musukoaren erabilpena pertsona bakoitzak hartu beharko lukeen erabakia dela eta bakoitzak bere ardurak hartu behar dituela. Azkenean, bakoitzak bere arrazoiak ditu jantzeko ala ez eta denak errespetagarriak izan beharko lirarteke. Izan ere, batzuei hobekuntzak beharrean kalteak eragiten dizkie. Hori bai, horrek ez du esan nahi zentzugabekeria aritu behar garenik eta ez direnik neurririk hartu behar. Lekuaren arabera ere, arauak aldatu daitezke. Hala nola, leku itxietan eta jende asko bilduko den lekuetan beharrezkoa izan daiteke.

**Egilea: Enaitz Pagola Esparza**  
**DBH 3**



# Egokiak al dira kamerak ikastetxean?

Garai teknologikoan bizitzen ari garela esan daiteke, ordenagailu, mugikor, kamera... eta imajinatu daitezkeen mota guztietako gailu bikainekin.

Hauek bizitzako esparru guztietan erabiltzera ohitu gara: lanean edo ikastetxean, etxean, kalean... Baina, aurrerapen honek bizitza denbora guztian kontrolpean edukitzea behartzen gaitu. Ez al litzateke gehiegizkoa izango ikasleak kameraz kontrolatzea? Ez dute lehenagoko guztiek bezala askatasuna merezi?

Kamerek ekarriko luketen planteatzeko arazo bat non jarri eta non ez izango litzateke. Begi bistako arrazoiengatik, komunetan barruan eta aldageletan logikoa da ez liratekeela jarri beharko. Dena den, gero ikastetxe barruan ala kanpoan jarri behar diren adostu beharko litzateke, klase geletan edo korridoretan soilik, irakasle gelan eta zuzendaritzan baita ere?

Alde batetik, kameren alde dagoen jendea dago. Esaten dute erabilgarriak izan daitezkeela klase barruan eta ikastetxean orokorrean kamerak edukitzea, lapurretaren bat edo bandalis-

mo akzio bat gertatuko balitz, erruduna aurkitzeko garaian asko erraztuko zelako prozesua. Gainera, ikasleak berak kontrolatuagoak eduki ahalko lirarteke azterketetan tranpa ez egiteko eta klase orduetan, bai klasean bertan, bai komunera ateratzen direnean denbora galtzen ez dutela ziurtatzeko.

Beste alde batetik, aurkakoa pentsatzen duen jendea dago. Honezkerok ikasleak nahiko kontrolatuak daudela; esaterako, *inika* eta *classroom* bidez akats minimora gurasoak ohar bat jasotzen dutelako eta entregatzeko epeak klase ordutik kanpo izaten direlako, beharrezkoak diren 6 orduak baino gehiago egitera behartuak izanez. Hori egiteko gastatuko litzatekeen dirua ere beste zenbait gauza hobetzeko edo eskolaz kanpo aktibitatearen bat egiteko erabili daitezkeela defendatzen dute.

Hernaniko institutuaren kasuan, nire ustez, kanpoaldean

jartzea erabilgarria eta onuragarria izango litzateke, urteetan zehar egon diren bandalismo, errekontzak eta, orokorrean, mota guztietako kalteak geldiarazteko. Aldiz, edifizio barruan jartzearen kontrakoa naiz, ikasleak pribatutasun minimo bat edukitzeko eskubidea dutela uste dudalako. Teknologia erabiltzea ondo dago, baina zure askatasunaren menpe direnean arazo baten aurrean gaudela deritzot eta, horretarako, ikastolak gutxienez egunean sei orduz aske izateko aukera eman beharko luke.

Azkenik, kameren alde dauden pertsonak prest egongo al lirateke egunean sei orduz behatuak izanez? Eta bere lantokian berdina egingo balute? Bere nerabezero garaian berdina egingo balute gustatuko al litzateke? Ez dut uste pozituko liratenik eta, horregatik, teknologia garaian bizi diren gazteei, beti jendearen iritziaz pendiente dauden hauen azalean jarri eta gutxieneko askatasun bat behar dutela ulertzea eskatuko nieke.

**Egilea: Sara Ortiz**  
**DBH 3**



# Herria ala hiria

Gazte asko daude independizatzeko bidean, eta askori zalantza bera pizten zaie: hiri batean edo herri batean bizi?

Honen aurrean, gurasoei eta lagunei haien iritzia galdetzen diete eta bakoitzak gauza ezberdin bana esatean hasten dira komeriak, gazteak larritu egiten dira. Etxetik joateko unea gero eta gertuago ikusten dute eta nora joan jakin gabe geratzeko beldurra sartzen zaie. Hortaz, gazte horiei guztiei laguntzeko asmoz, nire iritzia emango dut.

Nik herriak nahiago ditut. Hasteko, nabaria da herriak merkeagoak direla, alde guztietatik begiratuta, bai etxebizitza bat bilatzean eta baita erosketak egiterakoan ere. Nire ustez, batez ere gazteak garenean, honek garrantzi handia du; ez gara burua hausten ibili behar gauza guztiak nola ordainduko ditugun pentsatzen eta uneoro honegatik larrituak egoten.

Bestalde, jende kopurua ere ez da berdina. Herrian jende guxtiagoko bizi da eta denbora pasa

ahala, lagunak edo gutxienez ezagunak diren hainbat pertsona daukazu zure inguruan. Zerbait gertatuko balitzaizu, inguruan egin dituzun lagunak gertu izango zenituzke laguntzeko. Hirietan, berriz, zure lagun edo senitartekoak zu zauden lekutik urrun badaude, denbora asko igaroko litzateke eta larrialdi kasuan, desabantaila handi bat izango litzatekeela esango nuke.

Egia da, hirian, behar dituzun leku guztiak eskuragarri daukazula, baita hauetara joateko autopista eta errepideak ere. Baina, herri inguruan autopista askoz gutxiago daudenez, eta, hortaz, trafiko gutxiago ere, soinu gutxiago egon ohi da. Honek lasaitasun handia ematen du, batez ere gazteok ikasteko eta gure denborapasak egiteko isiltasuna behar dugunean.


Euskadiko kutsadura maila ikertzen ari diren ikerlari talde

batek esan duenez, hirietako kutsadura maila herrietakoa baino askoz altuagoa da, trafiko, enpresa, eta abarren ondorioz. Kutsadura honek sortu ditzakeen gaitzak handiak dira eta, nire iritziz, hori desabantaila handi bat da bizitzeko toki bat bilatzerakoan.

Azkenik, txakurra dugun pertsonontzat, herrian natura-gune gehiago daude, zelaiak, parke naturalak, mendiak... Eta horrek, onura asko ekarri ditzake lehen aipatutako animalia kalera ateratzeko garaian. Gainera, lasai paseatu ahal izango dugu, baita txakurra zelaietan lasai askatu ere, inongo arriskurik gabe.

Behin hori dena aipatuta, esango nuke ez dagoela zalantzarik ni egoera hartan egongo banintz egingo nukeenarekin. Aurreko paragrafoetan esan dudana laburbilduz, herriak merkeagoak dira eta lasaitasun eta erosotasun gehiago ematen dute. Nik, nire ikuspuntutik begiratu, herri batean bizitzea gomendatzen dizuet.

**Egilea: Ninbe Aizpurua. DBH 3**



# Asteburua Orion

Aurreko asteburua Orioko kanpinean pasa nuen aitaren aldeko familiarekin.

Eguraldi txarra iragarrita zegoen arren, bertan ginela sekulako eguzkia eta beroa nabaritzen hasi zen. Kanpinean gelditzea pentsatuta genuen, baina, eguraldi horrekin arratsalderako plana eztabaidatzen hasi ginen. Mendira joateko ideia bota nuen denbora pasa polita iruditzen zitzaidalako, baina lehengusuek hondartzara joan nahi zutela zioten behin eta berriro. Azkenean, mendira joateko konbentzitu nituen denak eman nizkien argudio hauen ondoren.

Ezer baino lehen, egia da udaberri hasieran egoteko tenperatura nahiko altua zela eta hondartzara joan gintezkeela. Hala ere, ez zuen hainbesteko beroa egiten eta Orioko hondartzan bainatuz gero, bat baino gehiago gaixotu egingo zen... Tenperatura 20°C-koa zen gutxi gorabehera eta egoikiagoa iruditzen zitzaidan galtza motz batzuk jantzi eta mendi buelta bat egitea. Mendian gora joatean, beroa pasako genuela ere ziurra zen; aldiz, pixka bat izerditu ondoren, larre berde batean etzan eta itasoari begira egoteak neke hori kentzen dizula ere egia da. Izan ere, zenbait unibertsitatetako ikerketek (Californiako

Dacher Keltner-ek egindakoak, adibidez) egiaztatu dute mendira joatean birrikak deskontaminizatu egiten direla hobeto arnasteko eta, gainera, eguzkiak tentsio arteriala txikiagotzen duela modu osasungarri batean.

Ildo beretik, jende askok dio mendian ez dagoela ezer egiteko. Bakarrik ibili eta ibili eta alferrik nekatzea lortzen dela eta lasaiegia dela. Aldiz, batzuentzako lasaiegia den giro "aspergarri" hori, mendia nahiago dugunontzat, jende gutxi ikusteak eta paisaiatz lasai gozatzeko lasaitasun izugarria transmititzen digu. Ni, adibidez, edozein mendi igo ondoren, nahiz eta handia edo txikia izan, lasaiego sentitzen naiz.

Bestalde, pertsonalki ilunabarrak eta izarrak ikustea gustuko dut eta esan dezaket ez dagoela konparatzerik nola ikusten diren hondartzatik eta nola menditik. Mendian ilunabarrak ikustea, munduan dagoen gauza hoberenetakoa dela esan dezaket. Koloreak nabariagoak dira, baita bista zabalagoak ere. Egia da gero gaez jaisteak baten bati beldurtu egin diezaiokeela, baina hori ere esperientzia dibertigarriak ekartzen ditu. Behin,

lagunekin jaisten ginela, koardrilako lagun batek izugarriko sustoa hartu zuen mugitzen zeuden zuhaixka batzuentzat.

Lehenengo argudioaren bide beretik, ikerketa askok eta askok ziurtatu dute, mendira joateak zenbait gaixotasun psikologiko eta fisikoren errekuerazio prozesua azkartzen duela. Adibidez, Frances Kuo eta Andrea Taylor zientzialariek ume askotan gautzatzen den TDAH-aren sintomak mendiak bezalako espazio berdeetan egon ondoren lasaiegoak direla diote. Horrez gain, antsietatea jasaten duen jendeari ere horrelako planek modu positibo batean laguntzen dietela diote British Columbia Unibertsitateko ikerlariak. Dena modu positiboago batean ikusten laguntzen dela esaten dute eta horrek etorkizuneko kezkak saihesten ditu, antsietatearen zati handi bat eramanez.

Ondorioz, emandako argudio horientatik guztiengatik, lehengusuei eta izeba-osabei kontatu ondoren, arratsaldeko plana mendira joatea izango zela erabaki genuen. Donosti-Orioko ibilbidea egiten hasi ginen, bukatu gabe, noski, gauerako kanpinera bueltatu behar ginen eta.

**Egilea: Jule Sarriegi DBH 3**



# Poesia txokoa

## GAUR EGUN

Gaur egun  
arrazismoa ez dagoela  
pentsarazten digute.  
Hala ere,  
gu erregeak bezala bizi garen  
bitartean  
han daude arima xume batzuk  
gerra artean bizitzen,  
bomben soinuarekin lokartzen,  
tanke baten aurrean zebrabidea  
gurutzatzen,  
edozein momentutan haien  
familiarak desagertzen.  
eta gainera,  
arrazismoa ez dagoela  
pentsarazten digute.  
Gure herrira etortzen diranean  
goxotasunaren bila,  
lanpostu baten bila,  
janariaren bila,  
poztasunaren bila  
eta heriotzaz ihes egiten,  
gu egiten dugun bakarra  
inmigrante hori marginatzea da,  
inmigrante hori etorri den  
lekura bueltatzea da,  
bizimodu hobearen bila etorri  
denari  
infernura bueltatzen dugu  
eta gero,  
arrazismoa ez dagoela,  
bukatu egin dugulako,  
pentsarazten digute.

4. maila

## EMAKUMEAREN AHOA

Ez zazue tapa  
emakumearen ahoa.  
bizi dadin.  
Hainbeste eskubide  
ukatu zaizkio  
jaio zenetik...  
Orain,  
besoak  
indartu ditu,  
emakume guztiak borrokan;  
ez diozue  
iraganean aske bizitzen  
utzi;  
jarri dizkiozue oztipoak  
lan munduan,  
ez dezan  
berak merezi duen etorkizuna  
izan.  
Hor datza.  
Pixkanaka lortuz doa berak izan  
behako lituzkeen  
eskubideak.  
Bakar-bakar-bakarrikan  
geratzen zaio  
etorkizunean aske izatea .  
Baina ez zazue,  
baina ez zazue,  
baina ez zazue,  
ez zazue tapa  
emakumearen ahoa.  
Adorez

balia dadin,  
Adorez  
bizi dadin.  
Honela ulertu  
dezazuen  
zertarako  
jaiotzen den  
mundura.  
Ez,  
ez zazue tapa  
emakumearen ahoa.

4. maila  
(Gabriel Arestiren "Gizonaren  
ahoa" poemaren bertsioa)

## MAITE BANAUZU

Maite banauzu,  
maite nazazu osorik,  
ez nazazu maite zatika.

Ez maite nire begiak,  
nire ezpainak,  
nire kurbak... soilik.  
Maite nire tripa,  
nire bazterrak,  
zauriak eta markak ere.  
Ahaztu nire pekak eta distirak,  
eta maitatu nire esentzia.

Ez nazazu erabili gauez,  
goizean ez banauzu maitatuko.  
Ez maitatu nire ile gorria,  
kanez betea dagoenean ez  
baduzu maitatuko.  
Ez nazazu maite osasunean,  
gaxiotasunean alde egingo  
baduzu.

Ez ezazu esan maite nauzula,  
goizean iritziz aldatuko baduzu.  
Maite nazazu biluzik,  
pozik eta zorigailte beteta  
nagoenean.

Ez maitatu nire perfekzioak,  
hori denek egiten dute eta.  
Zuk esan,  
zein politikak diren  
nire akatsak.

4. maila

## KENTZEN DIZKIGUTEN GAUZAK

Zer dela eta  
eramaten dizkigute  
maite ditugun pertsonak?  
Nora doaz?  
Non daude? gure  
artean ez badaude  
Non aurki ditzakegu?

Zer dela eta  
denbora pasatzen da  
horren azkar?  
Non geratzen dira  
pasarte horiek, gehiago  
goratuko  
ez diren horiek?  
Non aurki ditzazkegu?

Zer dela eta bizitzak  
edo dena delako horrek  
egin zituen gauzak diren  
bezela?

Begiak itxi eta hortxe nago,  
etorkizun idealizatu batean,  
baina askotan momentuko  
gauza txiki horiek  
disfrutatu gabe.

Begiak itxi eta  
hortxe egongo naiz,  
besteen artean,  
bat gehiago izanik.

4. maila

## AFRIKATIK DATORREN BIDEA

Ez ezazue ukatu  
Afrikatik datorren bidea.  
Mugi daitezen.  
Hain zaila  
egin zailen  
azkeneko urte hauetan...  
Orain,  
indargabeturik daude,  
gogorik gabe,  
esperantzik gabe;  
Itsaso eta erreketan  
utzi dituzue hiltzen,  
dena kendu diezue,  
zuen errua da;  
Telebistatik egunero  
ikusten dituzue,  
eta ez duzue ezer egiten;  
Ez diezue zertan lagundu behar,  
guk lagunduko diegu;  
baina ez ezazue ukatu  
Afrikatik datorren bidea.

Haizea Zabala (4B)

## GAUEKO KALEAK

Gaueko kaleak  
ixilak eta ilunak  
lasaiak eta hotzak.  
Gaueko kaleak,  
bakarrik joateko beldur,  
hain ilunak.  
Itzalak,  
Pausoak,  
Haize soina,  
bakarrik joateko urduri.  
Nik ere nahi nuke  
gaueko kaleetan ibili,  
Gaueko ixiltasunez gozatu  
inolako beldurrik gabe,  
lasai  
eta eroso,  
nahi nuke.

Lucia Lou (4C)

## NIRE BURUKO IDEIAK

Nire buruko ideiak,  
gora eta behera  
hanketatik sorbaldera  
batzuk lasaiak,

gehienak desioan,  
burua bete zait,  
nahi eta desioz,  
pentsamenduak toki batetik  
bestera  
ikusteko  
zehazki,  
adi eta konkretuki,  
etorkizun lauak,  
haiek  
niri  
burura  
ekartzen dizkirate  
nire asmo gehienak,  
inoiz utziko ez ditudanak  
eta  
inoiz beteko ez ditudanak,  
Irakaslea,  
Psikologoa,  
Medikua,  
Bonberoa,  
Astronauta,  
maite ditudan pertsonak,  
Aita,  
Ama,  
Osaba,  
Izeba,  
Amona,  
gorroto ditudan sentimenduak,  
tristura,  
haserre,  
jeloskortasuna, hortik,  
handik,  
edonundik,  
Betetzeko nahia guztiak sortzen  
zait barrenean,  
bertan egoteko eta bizitzeko,  
baina hemen geratzen dira,  
buru barruan,  
mirari baten zai,  
eguneroko pentsamenduak  
kentzeko  
lortzeko nahikoko gogoak  
ez baititut.

Anne Huifen Perez (Gabriel  
Arestiren "Bilboko kaleak"  
poemaren bertsioa)

## NOIZ ARTE?

Adierazpen askatasuna dagoela  
esaten dute,  
nik ez dut ikusten inon ere,  
rapero asko kartzelean daude,  
horregatik galdetzen dizuet noiz  
arte?  
Adierazpen askatasuna dagoela  
esaten dute,  
nik ez dut ikusten  
ezta hor ezta hemen,  
kaleak grafitiz margotuta daude  
baina beti kentzen dituzte.

Zergatik gertatzen da?  
Ez dago adierazpen  
askatasuna?  
Galdera hauek erantzutea  
errex da:  
ez dago askatasunik

nahiz eta hori esan.

Gorane Rodriguez (4D)

## GORROTOZ BETETAKO MUNDU BAT

Azal kolore desberdina edukita  
denok dugu berdin jatorria,  
eta batzuek gizartea aldatzen  
saiatu arren  
askoren ahotan dago  
aurreiritzia.  
Kanpotar baten aurrean  
burlatzeko habilezia,  
eta beldurak eragiten duena  
da indarkeria.  
Jende askok duena da  
ez jakintasunez betetako  
pentsamendua,  
eta horrek dakarren ondorioa da  
gorrotatzea errefuxiatua.  
XXI. mendera iritsi arren  
ez da asko aldatu gobernuak,  
eta arazoak sortutakoan  
bota ondokoari errua.

Alazne Larraza (4D)

## KANPOTARRA

Kanpotar bakartia aurkitzen da  
patioan.  
Jostailu bat dakar, erabiltzeko  
ordu hiletan.  
Bien bitartean  
Bere gelakideak jolasten  
zebiltzan  
baloiarekin  
zelaian zehar korrika,  
erraketekin...  
Kanpotarrak gustura jolastuko  
luke besteekin...  
Baina  
Azal kolore ezberdina omen du,  
bera marroi iluna,  
besteak zuriak,  
haiekin jolastu nahi,  
baina ezin.  
Orain ere gertatzen da  
nahiz eta ez pentsa.  
Arrazakeria ez baita  
antzinako kontua soilik,  
berdin tratatu beharrean  
erdalduna  
eta  
euskalduna.  
Kanpotarra bakarrik sentitzen  
zen.  
Haren jostailuari tanta bat erori  
zitzaion.  
(Amak gauean pentsatu zuen  
iturrian busti zitzaioa). Nik  
esanen dut,  
iruditzen zaidala  
zuri  
naiz beltz  
denak garela berdin.

4. maila